MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2018ko urria - 187. zenb.

KALAPUTXT

Gi-638 errepideko obrak:
Laranga auzoan hautsak harrotuta

Pinuaren azkena omen. Eta gero, zer?

Orain dala ehun urteko airoplanua

Orio-Bilbo arraunean; zergatik ez?

MIREN VILLACORTA ALBERDI
BETAURREKOEN DISEINU MUNDUAN



azaroaren 23tik abenduaren 3ra. 11 egun euskaraz
EUSKARALDIA

Gorritxu autoak

Pol. ANTZOMENDI · Galdona bidea
MUTRIKU 943 60 31 86
gorritxuautoak@hotmail.com

- ITV
- DIAGNOSIA
- ELEKTRIZITATEA
- MEKANIKA
- GURPILAK
- MANTENIMENDUA



domingo ibaibarriaga, 3 behea - 943 60 42 29 - 608 684 416 - apain@apain.net

Telefonoak

Osasuna

Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa	943 60 43 00
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00

Botikak

Lasuen-Elezgarai	943 19 50 26
	626 61 13 92
Lon Apraiz	943 60 32 50
	630 05 50 97
Amaia Zalduegi	669 26 22 01
Hiart Burgoa	667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar)	943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar)	943 74 11 77
Yudego (Elgoibar)	943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar)	943 74 12 77
Idoia Lafuente (Eibar)	943 25 44 10

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48
	679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Anai Arte	943 60 34 10
Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Eguneko Zentroa (Deba)	943 19 23 60
Turismo Bulegoa	943 60 33 78
Bake epaitegia	943 60 70 49
Kiroldegia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua	943 60 41 91
Ur Partzuergoa	902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Posta zerbitzua	943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola	943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko Institutua	943 60 35 45
Udal Euskaltegia	943 60 30 94
Udal Musika Eskola	943 60 37 80
Haurreskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia	638 67 23 83
ANTON taxia	666 22 19 99
XABI taxia	656 28 90 26
Lurraldebus	943 41 52 08
Pesa Autobusak	902 10 12 10
BizkaiBus	902 22 22 65
EuskoTren	902 54 32 10
Loiuko Aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia	943 60 39 87
Bikario etxea	943 60 39 88
Santa Catalina eleiza	943 60 32 00

Hamaika arrazoi 11 egunetan euskaraz bizitzeko

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte, Euskal Herri osoko hainbat eta hainbat bizilagunek euskararekin konpromisoa hartuko dute, 11 egun horietan euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz egiteko. Eta Mutrikun ere horretara goaz.

Urriaren 19an Beheko plazara 11 herritarrek herri osoaren izenean agertu zuten konpromiso hori, mutrikuarrok euskaraz bizi nahi dutenei aukera berriak eman nahi dizkiegulako.

Erabilera da guztiok bultzatu nahi duguna, euskaraz dakienak eta euskaraz ulertzen duenak elkarrekin euskaraz jardutea.

LUrraldea du euskarak, mugen gainetik, izenen gainetik. Geu gara, euskal hiztunok, euskararen lurraldea.

IkuSgarria izango da Euskal Herriko zenbat eta zenbat eremu berritan zabalduko den euskara, ahobizi eta belarriprest jokatuta.

AKtibazioa izango da erronka: beharrik ikusten ez duena euskararen erabilerak hauspoa behar duenaz ohartzea.

Aldaketa ekarriko digu Euskaraldiak. Zergatik ez diot lagun horri euskaraz egiten, ulertuko didala badakit eta?

EtoRkizuna eman nahi diogu euskarari, eta gure ondorengo belaunaldiei, geuri ere gure aurrekoek eman ziguten bezala.

Aniztasuna nahi dugu euskararentzat. Kanpotik etorri direnek gure hizkuntza hartu dute eta euskarak beraiek hartu ditu.

ELkarlana izango da euskararen indarra. Gu bat ni bat eta zu bat batuta baino gehiago izango delako.

TalDea da herria eta herriak behar du hizkuntza. Euskara da gure taldearen hizkuntza.

Ibibidea egin dugu mendetan zehar, hemendik eta honainokoa. Egin dezagun mendetako ibilbide berri bat, euskaraz.

BAikortasuna izango dugu jarrera, eta bai esango diogu euskarari.

11 egunen ostean hamaika egun etorriko dira, bizitza oso bat ere bai, eta aurretik izango dugun horretan ere *ahobizi* eta *belarriprest* jarraituko dugu, gure eguneroko bizitza gurean eginda, euskaraz, natural-natural, jakinda euskaraz egiten ez digutenek ere ulertu ahal digutela eta askotan eskertu ere egingo digutela guk haiei euskaraz egitea. Mutrikun eta Euskal Herria osoan ere bai.

Argitaratzailea Karenka komunikazio elkartea
Barrenkale 12, behea - 20830 Mutriku Tel. 635 748 393
e-posta aldizkaria@kalaputxi.eus - kalaputxi2001@gmail.com
web http://www.kalaputxi.eus Bloga www.kalaputxi.blogspot.com
Laguntzaileak Mutrikuko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia
Kolaboratzaileak Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga.
Tirada 2.200 ale Lege Gordailua SS-787/01 ISSN 1579-4792
Inprimategia EUSKALINPRI Banaketa Kalaputxi

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Erakunde hauen diru laguntza jasotzen du:

Mutrikuko Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

www.lurraldebus.eus

900 300 340

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00	
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30	
Donostia	*7:55	11:30	14:30	19:30	---	*Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	*14:30	18:00	20:30	*Unibertsitatetik
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro		20:15	21:25	22:15	22:45
Mendaro	7:50	orduro		20:50	22:05	22:50	22:55
Eibar	8:15	orduro		21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro		21:30	22:45	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

						ostr. lanegun
Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45	22:15
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10	22:30
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15
Mutriku	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

NEGUKO ORDUTEGIAK EGUNERATUTA

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	10:30	14:30	17:00	Ig 20:30	Lr 21:00
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	Lr 7:15	Ig 8:15	orduro	20:15	21:25	Lr 22:15
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:20
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	Lr 6:50	Ig 7:45	orduro	Lr 21:45	Ig 19:45	
Eibar	7:00	8:00	orduro	22:00	20:00	
Mendaro	7:35	8:35	orduro	22:35	20:35	
Mutriku	7:55	8:55	orduro	22:55	20:55	

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	Lr 8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	Lr 9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	Lr 22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	Lr 9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	Lr 8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	12:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	12:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:

www.kalaputxi.eus/garraioa

TEN EDO ETEN?

Gizakiok bere-berezkoa dugu gure aurrekoen usadioak zaindu eta irmo babesteko premia, sarri nondik datozen jakin ere eztakigula eta, are gehiago, bizi dugun aroan zer nolako ekarpena egiten duten pentsatu gabe.

Aldiz, askoz naturalagoa iruditzen zait betidanik egin denak halabeharrez betirako izan behar ez duela pentsatzea.

Hari mutur honi helduz, ez dakit zuek baina ni neu sinestarazita nago Piñastegi eguneko sokamuturrak jai giroaren aldeko baino kontrako osagai gehiago dituela.

Izan ere, argudio animalistez haratago, badira moila ingurua guztiz galdiarazten duen ekitaldi honen arrakasta zalantzan jartzen duten hainbat egitate.

Eguerdiko ordubata, txarangaren doinua lagun, moila jendez lepo. Badator ganadutegiko kamioia. Zer egiten du jendeak hurrengo ordu eta erdian?

Bada, gutxiengo batek zezenketa eremu zabala hartzen duen bitartean, gehiengo handiak behatoki garai edota taberna atarietako babes leku apurrak betetzen ditu, hesi gorri erraldoien atzean giltzapetuta bezala, zezenik egon ezean egingo lukeena egiteko: jendartean, gehienak edalontzia eskuan, kontu kontari aritu. Apustu egingo nuke haietako askok batetik bestera dabilen animaliaren kolorea zein den esaten ere ez luketela asmatuko.

Goizekoa bukatu eta ordu gutxira, arratsaldeko 6ak bueltan, moila ingurua berriz ere jendez beteta, badator ganadutegiko kamioia atzera eta… zoaz berriz ere aurreko paragrafora, errepikatu egiten baita kontua.

Paradojikoa bezain esanguratsua, ezta?

Nago urteak joan eta urteak etorri errepikatzen den egoera honek merezi duela gutxienez Piñastegi eguneko sokamuturren nahitaezkotasuna zalantzan jarriko duen hausnarketa bat.

Behin honi ekinda, sokamuturrak berak Mutrikun duen oraina eta geroari buruzko gogoeta sakon bati ekin eta, herriak hala nahi badu, alternatiben inguruan eztabaidatzea ere ez legoke soberan.

Mutrikuarrok zezenaren sokari ten egiten jarraitu nahi dugu edo behin betiko eten?

Ander Aranberri

EUSKARA BATUAREN ADIERAZPENA ARANTZAZUTIK MUNDU ZABALERA

Euskaltzaindiaren sorreratik ehun urte eta Arantzazuko Biltzarretik berrogeita hamar igaro direnean, Euskaltzaindiak honako adierazpen hau aurkeztu nahi dio euskal gizarteari, euskara batuaren inguruan eragile publiko zein pribatuek berresteko eta azpimarratzeko euskara batuaren garrantzia eta, horrekin batera, orain arteko ibilbidea eta etorkizuneko erronkak.

Hartara,

(...) (laburpena)

10.- Ehun urte joanak dira Euskaltzaindi sortu berriak, euskararen bateratze-saioari ekin zionetik. Berrogeita hamar urte, berriz, Arantzazuko Biltzarra egin zenetik.

Euskara batuak, euskaldunen eginahalak tartean direla, eremu berriak irabazi ditu euskararentzat eta euskal kulturarentzat. Hala ere, oraindik badira irabazi beharrekoak.

Zeregin horretarako tresna paregabea dela erakutsi du euskara batuak, eta bere aitzinamenduan jarraitu behar dugu guztiok. Hurrengo berrogeita hamar urteetan ere bada motiborik, euskara batua indartzen saiatzeko: lanabes baliagarria da berau, aldian-aldian behar izan ditzakeen egokitzapenez hiztunen arteko hainbat jarduera errazteko eta bermatzeko: batez ere idatzizko jardunean eta mintzaera jaso-formalean erreferente argi eta noranahikoa eskuratzeko.

Hurrengo belaunaldien eskuetan jarri behar dugu ondare hori: etxetik eta lagunartetik euskaldun direnei beren hizkuntza-gaitasuna osatzeko eta aberasteko bidea emango diegu horrela, eta etxetik ez dakitenei euskaldun askoren esparrura erakartzeko aukera eskainiko. Belaunaldi berri horiei dagokie, eskuratu dieguna osatu, hobetu eta hurrengoei transmititzea. Horixe da bidea euskarari desio diogun etorkizuna bermatzeko. Zalantzarik gabe, bermatze horretan guztiok behar dugu partaide izan eta lehen-lehenik Euskaltzaindiak.

Arantzazun, 2018ko urriaren 6an

Euskaltzaindia

Euskaltzaindiarekin batera, beste 35 erakunde publiko zein pribatu atxiki zaizkio dokumentuari.

Adierazpen osoa hemen: www.kalaputxi.eus/euskara batuaren adierazpena

*Kalaputxi*k irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Datozen ordenean eta espazioak eskaintzen duen aukeraren barruan, moztu edo hurrengo hilerako laga ditzakegu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira: **kalaputxi2001@gmail.com** edota **aldizkaria@kalaputxi.eus**

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian hirugarrenek adierazitako esan-iritzien erantzukizunik.

PINUAREN AZKENA OMEN; ETA GERO ZER?

Azken urteetako kezka izan da pinuaren gaixotasunarena, pinuarenak etorkizun hurbilean eginda izango zelakoan. Eta etorkizun hurbil hori askok uste baino lehenago ere iritsi da. Euskal Herrian pinuaren presentzia oso zabala da, Bizkaian eta Gipuzkoan batez ere, eta esan daiteke zuhaitz-mota hedatuena bera dela gure lurraldean, baserriari lotutako esplotazio moduan batik bat.

BASOEN IBILBIDEA AZKEN MENDEETAN

XVII, XVIII eta XIX. mendeetan baso-masari emandako erabilerak lurraldea ia zuhaitz gabe uztera eraman zuen. Euskal Herrian jarduera ekonomiko nagusia osatzen zuten burdinolek eta untziolek gure basoetako zuhaitzak erruz behar zituzten. Mende haietan izandako gerretan eta gerra osteetan ere zuhaitz horiek bizibide garrantzitsua izan ziren, eta ondoren etorri ziren desamortizazio legeek ere publikoak ziren basoen dekadentzia ekarri zuten. Horiek guztiak gutxi balira, edozein zuhaitzek jasan ditzakeen gaixotasunak jasan zituzten gure basoetako haritzek, gaztainondoek eta bertako zuhaitzek. Horren guztiaren ondorioz, XIX. mende bukaeran Bizkaiko eta Gipuzkoako mendietako zuhaiztiak gainbehera etorri ziren, batez ere kostaldekoak.

Egoera hura ikusita, bertako zuhaitzak birlandatzeko zeuden zailtasunak kontuan hartuta, XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran euskal Foru Aldundiak mundu zabaletik ekarritako zuhaitz-landara berriekin probak egiten hasi ziren gure lurraldera eta klimara ondoen egokitzen zena bilatzearren. Ondorioa argia izan zen: *insignis* pinua. Hortaz, pinua izango zen gure lurraldea basoberritzeko erabiliko zen zuhaitz berria.

Ordutik, XX. mende osoan batez ere, pinudiek berdetu dute gure mendia, eta pinudiek, batetik, basoari eta mendiari biologikoki bizitzen lagundu diote; bestetik,



OKINDEGIA
POTERO
DENDA.....943603643
OKINDEGIA.943604512



baso-jabeei eta baserriari bizimodua aurrera ateratzeko diru-iturri garrantzitsua ekarri izan die. Familia askotan, pinuak seme-alaben ikasketak posible izatea ere ekarri dute, adibidez, eta baserri askotan ekonomiaren sostengu izateraino heldu zen. Horrekin batera, lurralde osoan basogintzako jarduera ekonomikoa eta lanpostu asko ere sortu zituen pinuak, oraindik orain dirauena.

XX. mendea joanda eta XXI. gizaldian sartuta, baina, pinuari azkena etorri zaiola dirudi. Edozein errepideren bazterretan ikusten diren pinudi lehen berdeak marroitzen edo marroituta ikusten ditugu gaur, pinuak *Lecanosticta acicola* onddoak sartutako gaixotasunak jota. Aurten bestean ez baina lehenago ere gure pinudietan egon den onddo hori pinuaren barruraino sartu eta barrutik usteltzen du egurra, eta hostoen berdea ere jan egiten du, sikatu egiten du zuhaitza. Gaixotasunak aurrera egiten duela ikusita, gaixotutako pinuak eta oraindik ere gaixorik ez daudenak jo beharrean aurkitzen dira baso-jabeak. Baina pinua jo eta jo, merkatuak har dezakeena baino kopuru handiagoa ari da merkaturatzen, eta horrentzako soluzioak ere bilatzen dihardute, mozten den egur guztia ondo biltzeko, galdu gabe, nahiz eta diru-balioa galdua duen.

AURRERA BEGIRA

Baso-jabeen ikuspegia

Baserritarren ikuspuntua ezagutzera joanda, azpimarratu dute baserritarrak urte luzetan izan direla mendia garbi mantendu dutenak, eta beste arrazoi batzuen artean pinudien landaketak eta pinudi horiek zaintzeko lanek ekarri dutela mantenu hori. Pinua baliabide ekonomikoa izan da baserriarentzat, eta, diotenez, hori galtzen bada eta ordezkapenik ez badago, mendia sastrakaz betetzen joango da ondorioz ingurumenaren gaineko arrisku handiak sortuta. Berdin birlandaketak egiten ez badira, lurra higatu egingo delako eta horrela gure orografia erabat kaltetuko delako.

Horren aurrean, baserritarrek mendia eta basoa birlandatzeko eta etorkizunean zaintzeko politika berriak eskatzen dituzte, hori gizarte osoarentzako onura bat izango litzatekeelakoan. Izan ere, baserritarrek basoan sartutako euro bakoitzeko sei euroko buelta omen datorkio gizarteari, co2ren isuriak moduko ingurumeneko adierazleak kontuan hartuta.

Ekologia-ikuspegia

Biologia ikuspegitik, ingurumenaren babesetik hurbilago dauden ereduak bultzatu beharko lirateke, maldetan egindako landaketak zainduta, matarrasa ebitatuta eta landaketak dibertsifikatuta, zuhaitz-mota bakar bat baino zenbait mota landatuta. Sistema horren bitartez mozketak txandakatzean, diru-iturria ere denboran zehar txandakatu egingo litzateke aldi luze baten zain egon gabe. Gainera, espezie bakarra landatzeak arrisku handiagoa izango luke, gaixotasunen aurrean adibidez.

Espezie bakarreko esplotazio intentsibo eta masiboaren ereduaren ezegokitasuna frogatutzat jota, administrazioek eredu hori babesteko eta bultzatzeko diru-laguntza lerroak kritikatzen dituzte, beste landaketa-motak egin nahi dituzten baso-jabeei ere laguntza berdinak eman beharko litzaiekeelakoan.

Edonola ere, ikuspegi ekologikoa lehenesten dutenen ustez, basogintzaren orain arteko ereduaren krisiaren bukaeran gaude eta gizarte mailako debatea egitea komeni da, alderdi guztien iritziak, kezkak eta proposamenak entzunda eta aztergai hartuta.

Administrazioa zertan den

Administrazioak lurraldea zaintzeaz duen eskumena baliatuz, pinua jasaten ari den gaixotasunak sortutako kalteari konponbidea emateaz arduratuta dabil. Pinua kendu eta bere ordez bertako espezieak birlandatzeko diru-laguntzak, pinudiak kobre-oxidoz fumigatzea… eta, bitartean, pinuaren tokia har dezaketen espezi berrien bila aritu. Duela mende bat pasatxo bizi izan zena ezagututa, beharbada dagoeneko jakin behar zen zein espeziek ordezka zezakeen pinua, baina oraindik inork ez daki seguru etorkizuna nondik etorriko den: eukaliptoa, sekuoia, pinu japoniarra… Kontua da baso-jabeek eta baserritarrek pinudiak jo behar dituztela baina ez dakitela nondik jarraitu, eta aditurik ez omen dago aholku zehatzik emango duenik.

Soluzio gaiztoa du pinuarenak, eta pinuaren lekua beste zuhaitz batzuek hartu beharko dutela begibistakoa da. Alde guztiek ikusten dute hori, baina gai berari zein ikuspegitatik begiratzen zaion, alternatibak bestelakoak dira. Bi mutur ikusten dira: ingurumenari begirako alternatibak eta etekin ekonomiko azkarrari begirakoak.

Soluzio errazik eta seguruenik bakarra ez duen gai honetan hurrengo hilabeteetan eta urteetan adi-adi jarraitu beharko, gure mendiak etorkizunean zein berdek koloreztatuko dituen ikusteko.

Bitartean, Xabier Amurizak pinuari idatzi zion olerkiaren bukaera gogoratuko dugu: "*inoiz hiltzeko ordurik baletorkio, eta etorriko zaio,isil-isilik joango da etorri zen bidetik, eta nik, bizi banaiz, maitale baten galera kantatuko diot*".





PENTSIODUNAK, ALDARRIKAPENETAN

Hilabeteak daramatzate Euskal Herriko pentsiodunek beraien aldarrikapenak ozenki plazaratzen, eta gure herrian ere horretan jarraitu dute astelehenetan egindako elkarretaratzeetan. Urrian Gipuzkoako herri guztietan barrena bira egin dute eta herri guztietako alkateei beren eskakizunen berri eman diete eskura emandako agirian.

Pentsio ekonomikoen arazoaz gain, pentsiodunek beste hainbat kezka ere badute, eta horien inguruko eskakizun zehatzak izan badira ere, alkateari emandako agiriaren helburu nagusia da pertsona heldu eta zahartuei hitza ematea eguneroko jardunetan, eta hori bideratu ahal izateko batzorde berezitua egiteko eskaria. Azken batean, lan-adina iragan badute ere, pentsiodunak oraindik herriari asko eman diezaioketen pertsonak dira eta modu antolatuan asko dute herriari emateko.



ENPRESA BERRIEI ZUZENDUTAKO DIRU-LAGUNTZAK

Enpresa berriak ireki dituzten ekintzaileei zuzenduriko diru-laguntzak emateko deialdia egin du Udalak: bata sektore guztietan egon daitezkeen negozio berriak martxan jartzen laguntzeko, batez ere lanpostu berriak diruz laguntzen dituena; bestea, merkataritza guneko lokaletan ezartzen diren merkataritza-enpresa berriei zuzendua.

Mutrikulan 2018: Mutrikuko Udalak enplegu sorrera eta enpresa-ekimenen garapena bultzatzea du helburu diru-laguntza honen bidez. “Mutriku 2022 Plan Estrategikoa” dokumentuan zehaztutako estrategien baitan. Planeko helburuek eta estrategiek tokiko garapena bultzatzea sustatu nahi dute, batez ere, lehenengo sektorean (nekazaritza-arrantza eta gaien eraldaketa) eta hirugarren sektorean (merkataritza eta turismoa).

Dirulaguntza hauen bidez araututako neurrien garapena ondoko programen bitartez gauzatuko da: Enpresa-proiektu berrien sustapena; Enpleguaren sustapena; Disfuntzio fisikoak dituztenen enplegu sustapena

Mutrikuko inguru komertzialean dauden lokal hutsak ekintzaile berrien bitartez berreskuratzeko diru-laguntzak: Mutrikuko merkataritza biziberritzeko lan ildoen baitan, inguru komertzialetan merkataritza berreskuratu eta indartu nahi da, bertako lokal hutsak ekintzaile berriekin berreskuratzeko estrategia garatuaz. Helburua da ardatz horien funtzio ekonomikoa berreskuratzea eta indarberritzea. Eta horretarako, jarduera eta ekimen berriak ezarri nahi dira, horien bidez pertsonen joan-etorria sortzeko eta eremu horiei “bizia emateko”

GOIXERRI ETA ANDONEGI TXAPELDUN

Goixerrik eta Andonegik osatutako bikoteak Xistera elkarteak antolatutako Interjai txapelketa irabazi zuten Bilboko Deportivo frontoian izandako finalean. Lehia estuaren ondoren, Antxon-Ibarluzea bikoteari gailendu zitzaien 12-15, 15-11 eta 2-5 emaitzarekin.

Bikote mutrikuarraren ibilbide oparoak etenik ez du, eta hurrengo helburuak dagoeneko jarrita izango dituzte. Txapeldunekin batera, Manciren hirugarren postua ere aipatzekoa da.

Danok Bat elkarteak antolatuta Miruaitz pilotalekuan entsegutan ibiltzen diren gaztetxoek badute horregatik nori begiratu eta nori ikasi.

Etorkizunean ere Mutrikuk emango ditu pilotariak.



RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

MINBIZIAREN AURKA KOLABORATZAILE BILA


Minbiziaren aurka lan egiten duen elkarteak deia egin du kolaboratzaile bila. Izan ere, elkarteak gaixoei eta beren familiei ematen dien laguntza preziatuena borondatez diharduten kolaboratzaileen laguntasuna baita. Halako une larrietan dauden pertsonek askotan beste pertsona batzuen laguntasuna behar izaten dute egoera normalean txikikeriak iruditu daitezkeen gauzetan. Adibidez, ospitalera medikazioa hartzera joaten laguntzea gauza handia izan daiteke beharra duenarentzat. Kolaboratzaileen sarean parte hartu nahi dutenek Elkartearen Eibarko bulegora deitu dezakete 943202494 telefonora.

EÑAUT BARRUETABEÑAK BERE MARKA ABIATU DU

Aurtengo martxoko zenbakian egindako elkarrizketan Eñautek esaten zuen bere marka izatea zuela helburu. Ba, lortu du helburua eta dagoeneko merkaturatua du ENAUT markapean berak diseinatu eta sortutako bilduma. Kalbaixo txiki egunean Bartzelonan egin zuen aurkezpna, baina egun horretatik aurrera Mutrikun ere izan du presentzia, Adats ileapaindegiaren erakusleihoan hain zuzen ere.

Denda fisikorik ez du oraingoz izango, eta Eñauten erropak ikusteko eta erosteko aukera interneten izango da, **www.enaut.co** web gunean eta sare sozialetan, Facebooken eta Instagramen nagusiki. Oraingoz, hortik bideratuko dira sal-erosketak, eta diseinatzaile gazteen azoketan ere parte hartzeko asmoa dauka.

Moda-diseinuaren mundu horretan Bartzelonan egin du abiapuntua, eta hantxe jarraitzeko asmoa du, han bizi eta lan eginda etorkizunerako aukera egokiagoak eta oparoagoak izango dituelako. Hala ere, Mutrikurako bidea ondo gogoan duela gogoratu digu, eta sarri ikusiko dugula gure artean.



MUTRIKUKO ZINE FORUM TALDEA

"Bizirik dago, bizirik dago!". "Badakit zer ari zaren pentsatzen: ea bost edo sei bala erabili ditudan". Baina nik, "ukatu ezingo duzun eskaintza bat egingo dizut" eta "uste dut adiskidetasun eder baten hasiera izango dela". "Zergatik ez zara altxatzen eta ni ikustera etortzen, behingoz?". Urrian elkartu berri gara eta azaroan "itzuliko naiz". "Jainkoa horren testigu".

"Bankuak lapurtzen ditugu" eta batzuetan, "hildakoak ikusten ditut". "Gustuko dugu Napalm usaina goizetan!". "Inor ez da perfektua".

"Jo ezazu Sam": "Gutxi gara, gutxi batzuk besterik ez; zoriontsu diren gutxi batzuk, anaiak gara! (...) eta bataila honetara aurkeztu ez diren gainontzekoak, laster, damutu egingo dira hemen egon beharrean ohean geratu zirelako!". "Zoritxarrez, ezin da azaldu Matrix zer den. Norbere begiekin ikusi behar da. (...) Pastilla gorria hartzen baduzu, lurralde miresgarrian jarraituko duzu".

Azaroan, "beste egun bat izango da" eta bestela, "beti geratuko zaigu Paris". "Indarrak lagundu zaitzala!". "Sayonara, baby".

Bueltan da Mutrikuko Zine Forum Taldea. Esaldiak ordenean: Frankestein (1931), Harry el sucio (1971), El Padrino (1972), Casablanca (1942), Lady Lou (1933), Terminator (1984), Lo que el viento se llevo (1939), Bonnie and Clyde (1967), El Sexto Sentido (1999), Apocalipsis Now (1970), Con faldas y a lo loco (1959), Casablanda (1942), Enrique V (1989), Matrix (1999), Lo que el viento se llevó (1939), Casablanca (1942), Star Wars (1977), Terminator 2 (1991).



LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

txirritxa .com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrildea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia

RUGBYA INDARRA HARTZEN

Kirolak, gazteen kirol praktika osasuntsua izateaz gain, herriaren izena batera eta bestera eramateko ere balio izaten du. Herri-kiroletan Sokatira taldekoek eta Mugerza aita-semeek, futbolean Mutriku FTk eta Burumendik, eskubaloian, saskibaloian, xakean... Kirolari horiek guztiek lurralde osoan eta erbestean zabaltzen dute gure herriaren izen eta irudia.

Errugbian ere Mutriku Rugby Taldeak batera eta bestera eramaten du gure herria. Azkena, V. Nazioarteko Bilbao Rugby Hiri Sarian ibili dira gure neska-mutil gazteak. Ildo honetan, zuzendaritza taldekoek eskerrak eman nahi dizkiote Iñaki Mujika klubeko jokalari ohiari, berak egin baitzion MRTari gonbidapen espresua Bilbokoan parte hartzeko.

Klubak dei berezia egin nahi die gaztetxoenei eta beren gurasoei, 8-9 urteko gazteekin taldetxo bat egin nahi dutelako kirol honetan proba dezaten.




ARATZ MUGERZA SASOIAN

Giza proban bi plaza osatu, aizkoran kanaerdiko hiru enbor moztu, berrogeita hamarna kiloko txingekin sei plaza bete eta hiru kilometro korrika. Horixe da Aratz Mugerzak irailaren 29an burutu behar izan zuena Euskal Pentatloia osatzeko.

49 minutu eta 47 segunduko denbiorarekin, Aratzek hirugarren postua lortu zuen, eta 80 kilo azpikoen saria eskuratu zuen, bere hitzetan luze egin zitzaion proban.

Azpeitiko zezen-plazakoaren ondoren, udazken honetan Aratzek bigarren mailako aizkolari txapelketan jardungo du. Ea ba aurki anaia biak kategoria berean elkarren arteko lehian ikusteko modua izaten dugun.





Uzuri
RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

GI-638 ERREPIDEKO OBRAK
LARANGA AUZOAN HAUTSAK HARROTUTA

Iazko irailean jakin genuen mutrikuarrok GI-638 errepidea hobetzeko obrak aurki egingo zirela. Hala ere, ordutik hona, eta gorabehera batzuk tarteko, ez dago ezer zehatzik proiektu honen inguruan.

Aurtengo irailaren 26an Laranga auzoko biztanleek bilera batera deitu zituzten herritarrak euren egonezina partekatzeko. Auzotarrez gain herritar zenbait ere hurbildu ziren Zabiel kultur etxeko bilkurara. Bertan entzundako kexa nagusia informazio faltarena izan zen, eta Aldundiak zein Udalak auzotarrekin egindako bilerak, urriak izateaz gain, ez dira argigarriak izan, auzotarrek diotenez.

Mutriku-Deba errepideko lanek ondorio garratzak izango dituztela badakite auzotarrek, eta prest azaldu dira eragozpenok jasateko, baina, era berean, eragozpenok hobeto ahalbideratu badaitezke, gaia elkarren artean lantzea eskatzen dute.

Aldundiak Gipuzkoan gehien saltzen den egunkariari emandako azalpenen arabera, lanek iraupen luzeagoa izango omen dut, baina auzotarrek zalantza dute zenbat denboraz ari ote den.
Orain arte kostatik dabilen trafikoa sei mila auto direla dio administrazioak, eta horrentzako alternatiba, Kalbarioko bidea. Eta bidea tamaina honetako trafikoa jasateko prestatuta ote dagoen zalantzan jartzen da.

Larangakoak izango dira zalantzarik gabe eragin handiena jasango dutenak; hotelak, nekazaletxeak, jatetxeak... Aldundiari eta Batzar Nagusietako ordezkariei bidea itxita egongo den aldi luze horretan negozio horiek zer egin beharko duten galdetu diete, eta egoera horri begira neurriak hartzeko eskatu, baina oraindik erantzunik ez dutela jaso diote.

Bestalde, auzoan bizi diren 150 biztanleei modu nabarmenean eragingo diete lanek eguneroko bizitzan, eta auzotarren iritzian hori oso kontuan hartu beharko litzateke. Adibidez, auzotik irteteko zein sartzeko proposatutako bideak egokiak diren zalantzan jartzen dute auzotarrek, are gehiago, auzotarrek diote bideak ez direla egokiak eta arriskutsuak ere izan daitezkeela.


Bideari lotuta, bide osoa ixtea derrigorrezkoa ote den galdetzen dute. Ez ote den posible Mutrikurako bidea eta Debarako bidea zabalik izatea txandaka, lehenengo alde bateko lanak eginda eta gero beste aldekoak. Beharbada kostuak izango dira ixtaren arrazoi nagusia, baina jendearen bizimoduak ere balioa izango duela aldarrikatzen dute.

Larangakoak izango dira okerren ibiliko direnak, bai, baina herrian bizi direnek ere igarriko diote. Izan ere, egunero milatik gora mutrikuar mugitzen dira herritik kanpo lanera, eta bide ixte honek eragin zuzena izango du euren joan-etorrian. Eta egunero garraio publikoan ibili behar dutenentzako alternatibak non dauden galdetzen dute.

Azkenik, ikuspegia zabalduz, auzotarrek diote herriko denda eta tabernek ere jasango dutela eragina. Kontuan izango du administrazioak zein datatan eta denboratan egin obrak mutrikuarrengan ahalik eta eragin txikiena izateko?

Galdera galderaren gainean eta erantzunak falta. Horixe eskatzen dute larangatarrek, erantzunak izateko bidea, komunikazio zuzena erraztuko dituzten zubiak izatea.

> “derrigorra al da bide osoa ixtea?



aparra
UDAZKENEKO MODA PREST!
www.aparramoda.com
Erdiko Kale 29 20830 Mutriku Tlf. 943 604 594 645 033 561

OKILA S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

Miren Villacorta Alberdi
betaurrekoen diseinu munduan

Herriko institutoan zientzia arloko batxiler ikasketak egin ondoren, ingeniaritza ikasketak egin zituen Arrasateko Unibertsitatean diseinu arloan. Urtebeteko praktikak Lekeitioko enpresa baten egin ondoren, beste urtebete jarraitu zuen bertan hasitako proiektua bukatu bitartean. Londresera egin zuen salto ingelesa ondo menperatzeko, eta hurrena Bartzelonara diseinu arloa hurbilagotik bizitzeko, master bat egiten zuen bitartean. Egun, bertako enpresa batean egiten du lan betaurrekoak diseinatzen eta mundura zabalik.

Zein da zure ikasketen curriculuma?

Beste edozein herritarrek bezala lehen estudioak bukatu eta batxilergoa egin nuen Institutuan. Hasieratik aukeratu nuen zientzien adarra gustukoago nituelako bertako ikasgaiak, baina oraindik nora bideratuko nintzen garbi eduki gabe.

Batxilergoa bukatu nuenerako ingeniaritzarako bidea nahi nuela ziur neukan, baina ez oraindik zein arlotatik, beraz ez nizkien ateak itxi nahi aukera ezberdinei. Unibertsitate ezberdinek eskaintzen zituzten aukerak begiratzean, konturatu nintzen, besteen artean, diseinu arloa erakargarriago egiten zitzaidala, eta Arrasateko Unibertsitateak eskaintzen zuela kopuru handietan ekoizteko diseinu mota; beraz oraindik ere ez nizkien ateak ixten beste bide batzuei, eta bertan matrikulatu nintzen. Beste ingeniaritzekin konpartitzen genituen zenbait irakasgai eta diseinu arloan, diseinua beraren bideak aztertzea zen gure irakasgaia: zerotik bukaerara arteko ildoen jarraipena lortu nahi dituzun produktuei begira. Horretarako, jakina, material eta makinen maila bateko ezaguera ere izan behar duzu. Hiru urteko ikasketak dira, eta laugarren urtean titulua jasotzeko proiektua aurkeztu behar duzu, batera praktikak egiten dituzun bitartean.

Unibertsitateak bidalita, praktikak Lekeitioko Burdinola Kooperatiban egin nituen. Laborategietarako altzari bereziak egiten dituzte han, eta nire lana izan zen eurek zuten bozeto edo ideiatik hasita, produktu bilakatzerainoko bidea diseinatzea. Enpresaren barnean egin nuen lan urtebete horretan, unibertsitateko tutorearekin etengabeko harremana izanik, zehatz-mehatz nire urrats guztien berri emanez. Era berean, hark enpresarekin zuen kontaktua.

Urtea pasa ondoren, nire proiektua bukatutzat eman nuen eta titulua lortu, baina enpresaren proiektua, modeloak egitearena, bukatu gabe gelditu zenez, hura bukatu arteko kontratua eskaini zidaten, eta, hala, beste urte bat egin nuen enpresa horretan.

Nora bideratu zenuen hurrengo pausua?

Nahiz eta enpresan gustura egon, ez ninduen betetzen enpresa baten horrelako lanak egiten jarraitzeak. Bestalde, ez nuen izan aukerarik kanpora ateratzeko (Erasmus aukerak zeuden orduan bete-betean), eta nire ingeles maila perfekzionatzea jarri nuenez helburutzat, Londresera abiatzea erabaki nuen neure kabuz bizitzera. Ahal nuen lanetan aritu nintzen (zazpi hilabetez egon nintzen ekitaldietan zerbitzuan, Erregina ere hurbil izatea gertatu zitzaidan horietako batean), ahaztu gabe nire alorreko zerbait bilatzea ere. Baina, esperientziarik gabe diseinu munduan sartzea zaila zela konturatzean, eta nire bidetik jarraitzea nahi banuen, masterren bat egitea beharrezkotzat jo nuen. Ez titulitis bidetik joaz, baizik nire lanean zentratzen lagunduko zidalako.

Ingelesari gustua hartu nionez, hizkuntza horretan egitea erabaki nuen, baina Londresen egitea diru kopuru handiegia gertatzen zitzaidanez, berriro salto egitea erabaki nuen.

Eta nolatan Bartzelonara?

Espainian Bartzelona da diseinu munduan aurreratuen dagoen lekua, eta bila-bilaka, halako batean, ingeles hizkuntzan zuzendutako master bat zabalduta zegoela aurkitu nuen: Diseinuaren lehen fasea. Oso interesgarria iruditu zitzaidan, oraindik ere ez baitzitzaidan inolako aterik irekitzen, eta buruz-behera joan nintzen eta matrikulatu *ELISAVA Escuela Superior de Disseny de Barcelona*-n, bertako unibertsitatearekin lotua eta prestigio handiko eskola diseinu munduan. Lehenengo masterra zen ingelesez arlo horretan ematen zutena.

Bi graduondo ziren, biak bi enpresa handirekin lotuak, bata *HP* inprimatzaile etxearekin, fatxadetan-eta egiten diren inpresioekin, eta, bestea, *Telefonica*rekin erabilpen berriekin lotua.

Zer aurkitu zenuen Bartzelonan?

Era berean ikasten zaudela bi enpresa handirekin lan egitea oso garrantzizkoa da bai bertako langileekin ikasteko izaten dituzun aukerei begira, zein zure curriculumerako. Aberasgarria izan zen, ingelesa erabiltzeaz gain norbere lana garatzeko, ikastaroan zeuden pertsonekiko harremana. Kataluniar eta euskaldun bat ginen eta beste guztiak atzerritarrak, eta gainera, lanbide eta adin ezberdineko jendea, euren ezagutza altxor aberatsekin. Asko ikasi nuen.





Masterra bukatu eta erraz aurkitu al zenuen lana?

Ez. Hainbeste ahaleginen ondoren pila bat elkarrizketa egin, leku mordotara aurkeztu, eta, hala ere, esperientzia gabea gertatzen nintzen besteen aurrean. Neure buruarekiko konfidantzak eta egoskortasunak libratu ninduen zazpi hilabete luzeko langabezia hura gainditzen. Bitartean, ahal nituen ikastaroak saiatzen nintzen egiten, oraindik eta gehiago neure burua hornitzeko. Bartzelonak baditu beste zenbait lekutan aurkituko ez dituzun aukerak horretarako. Harreman sarea ere zabalagoa da, eta ikuspegi berriei begiratzen laguntzen zaitu.

Halako baten benetako lana...

Bai. Curriculuma bidalia neukan eta elkarrizketara deitu zidaten, eta, hala, sekula espero ez nuen lana eman zidaten: betaurrekoen diseinua. Ez nuen pentsatu ere egiten mundu hori hor zegoenik ere.

Ikusi nuenean egoera kontzeptualetik abiatu eta fabrikatzeraino iritsiko zela nire lana “Hauxe da nahi nuena” esan nion neure buruari. Konturatzean, gainera, gaur egun betaurrekoak modaren osagarriak direla eta mundu horietatik edan behar nuela, orduan eta gusturago sentitu nintzen.

Kokatuko zenuke zure lana?

Lehen betaurrekoak behar zutenek baino ez zituzten erabiltzen, eta oso mugatua zen diseinu kontua. Orain, ostera, nahiz eta beharrik izan ez, zure imajinaren zati bat gehiago dira, eta daramazun arropa, poltsa, zapatekin lotura behar dute izan. Ez dizuet esango moda desfileetara joan behar garenik, baina, bai horien jarraipena egin behar dugula, erraz ahalbideratzen dizkiguten medioak erabiliz.

Nola mugitzen da zuen enpresa?

Aipatu dut ez dugula joan beharrik moda desfileetara, baina, bai, ordea, betaurrekoen ferietara. Hirurogei bat laguneko enpresa da gurea, eta diseinuan hamar bat aurkitzen bagara, besteak salmentara jarrita daude. Bi feria garrantzizko egiten dira, bata Parisen, *Silmo*, eta bestea *Mido*, Milanen. Bertan stand bat irekitzen dugu, eta nire lana izaten da konpetentziakoen standak begiratzea.

Marka ezagun batzuen lizentzia ere badugu gure betaurrekoak egiteko. Hala nola: Agatha Ruiz de la Prada, Guy Laroche, Armand Basi eta Mr. Wonderful, mundu mailan ezagunak.

Gure diseinuen fabrikazioan, nahiz eta lehenago bertan zegoen tailer txiki bat, dena Txinan egiten dugu, Hong Kong eta Wenzhou hirietan. Kontaktu etengabea izan arren, urtean hiru asteko bi bisita egiten dugu bertara, batzuk produkzio arloari begira, eta ni kalitate ikuspegitik. Fabrikatzaile potentzialak ere ikuskatzen ditugu, ea gure beharretara egokitzen diren.

Gustura bizi al zara Bartzelonan?

Diseinuan erreferente bat da Bartzelona penintsulan. Enpresa txiki eta artista asko daude diseinuan zentratuak, beraz bultzada handia sumatzen da inguruan (horregatik izan zen bertan bizitzea nire aukera). Bestalde, hiri kosmopolita izateak erakartzen nau. Harreman zabalak ditut. Kosta egiten zait nahiz eta katalana ondo ulertu katalanez mintzatzea, lotsak eraginda agian, baina lagun zein lankideek katalanez egiten didate nahiz eta nik gazteleraz erantzun. Euskalduna izateak uste dut erraztu egiten dituela gure harremanak. Esan behar, askotan entzuten den independentzia-zale edo konstituzio-zaleen arteko herra, ez dut nabaritu, ez behintzat nire inguruan. Pozik bizi naiz bertan.

Esan beharrekoa: Mutrikura heltzean optikan nik diseinatutako betaurrekoak salgai ikusteak poztasun irribarre berezia eragin zidan.



BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
Barrenkale, z/g
943 60 35 44

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

GALBAIXUAK

Imanol Lekunberri “Txilin”

Doinua: Juana Bixenta Olabe

1.- Bezperiakin hasi ohi gera
motorrak piskat berotze aldera
lagunakin kalian afaldu
danborrada ere ezin galdu
lota amana
Galbaixon fresko eon nahi dana
eta bestiak Zubiarana!

2.- Rodamientuak lurraren kontra
entzun orduko odola borborka
ohetikan altxatu saltuan
gosaldu ta Galbaixoa juan
euzki pikian
deportistak izerdi flotian
eta alperrak autobusian

3.- Ermitxan hartu txakolintxua
ta bultz etxeko txorixo pintxua
neu nai konduzitxuko detena
beraz neri atea azkena
de fruta madre
goitxiberetan holaxe gaude
goitxik bera ta frenoikan gabe

4.- Plaza heltzian Ametzanian
botila bana esku bakoitzian
goitxibera gorde daigun benga
listuena beti libratzen da
diar atzetik:
derrepentian alde hemendik
sokamuturra hasi aurretik

5.- Kardalatikan Bare-Barera
bizitza jokatzen ibiltzen gera
-bi zezen doz eo ze arraio
-doble zeuk ikustezu tokaio
pasa barrura!!
neu nai bote ta neure kontura
sei kalimotxo ta honi ura

6.- Itxaplerua entzun orduko
ia ba baillia librau Kanuto!!
karaokia do Gaztetxian
kantau nahi degu tablau ganian
ze kuxidade!
sentitzen gera izarren pare
estiluakin baina_ahots gabe

7.- Behin gaba einda hortik aurrera
zopa peskau ta salbese kien pueda
jo, erdixarekin a(ha)ztu ein nai
ta beste erdixa a(ha)ztu ein nahi
gaba gambara
ta txibatuak ere ez gara
jakitetzeko han egon bihar da

8.- Galbaixo txiki aje eguna
helduak ume bihurtzen ditxuna
jiganta eta kabezuluak
buruko min ta begizuluak
ume kotxau ai!
jigantiai eskua eman nahi
baina bilurra kabezuluai

9.- Beheko plazara bajau ezkero
usain txarrikan ezin da espero
fume egin atuna tatotu
kipula puntua ondo lortu
naeztet jakin
despistatzen bazaigu Benjamin
zenbat kazuela dozen tranpakin

10.- Bandiak ere etzuan ein huts
esnatu eta bonbardinuai futs
marmitxako arpei bat o beste
kanta artian ur baso eske
ezin iritsi
ahua puztu ta begixak itxi
eztakazue merito gitxi!

11.- Banau ta gero premixo danak
pagau ein bieu probau nahi doanak
enkantea jun, eskua altza
patatarekin ezto erraza
redios neska hau!
kazuelara guztiak pujau
bat erosteko danak izorrau

12.- Bazkaltzea jun laurak aldian
soziedadea konpaini onian
hemen presaikan eztakau bate
sobremesia zezenak arte
altu ez esan
Otxandiotik entzun ez esan
Indurain ere agertu ei zan

13.- Gaba orduko berriz nahastu
jiji ta jaja afaltzia a(ha)ztu
nik DJ-xa ta zuk kontzertuak
bakoitzak dakaz bere gustuak
gero batera
taberna zuluan batzen gera
espuela hartu eta etxera

14.- Piñasteira e allatu gera
antiojo beltzak jantzi ta aurrera
etxe danak iualak ei dia
ama nun dakat alkondaria?
Txurrukan batu
pasakalian moila bajatu
ta txarrixai sei bertso kantatu

15.- Eman ez jan ez esan ostian
amaitzen degu arkupe azpian
duan izatiak ze gauz(a) dauzkan
sardina za(ha)rrak jateko auskan
Sabino bauan
hemen batez, sei hor eta lau han
eta ni askoz lenuo nauan

16.- Zezenetan gu ez gea parte
zeozeinek min hartzen doan arte
zezen pintxuarekin problemak
horretxek ei dia zoruenak
bromaik ez dago
mutrikuarrez lepo Mendaro
bailla barruan earki nago!

17.- Kuadriliakin bazkaldu eta
buelta moilara tripia beteta
kukania eta patxan faltan
bat baino ge(hi)xok kejia zakan
ize_ezto aurten!
falta arte ez degu ikusten
lan txikixek ze balixo duten

18.- Bi tabernakin dakau nahikua
etxen degu kriston txikiteua
Puertoko tariman kaña eskau
txikitzen dua sokamutur hau
ezpada_aldatzen
bukau bihar degu laster baten
tarinei zezen plaza eskatzen

19.- Dantzan eginda txokolatero
goiko plazarte juan ginan gero
etxeako bidia a(ha)ztuta
ehun lagun tabernan sartuta
hola kontuak
noiz amatxu zian Galbaixuak
esan dezala kamareruak!

20.- Lagunen bueltan nahiko jai einda
Galbaixuekin uda bukatzen da
mutrikuarrak baldin bagea
bixar mundo osua lanea
pozik ta guapo
pixkat gitxio falta dalako
munduko jairik onenetako!!!

11 EGUN EUSKARAZ

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

EUSKARALDIAk
ez du euskaraz hitz egiteko gaitasunarekin zerikusirik, jokaerarekin baizik!

Ahobizi

Ahal duzun guztietan euskara erabiltzeko prest? Ahobizi zara!

Euskaraz egingo diezu ulertzen duten guztiei. Edonon, edonoiz eta ulertzen duen edonorekin arituko zara euskaraz.

Belarriprest

Dakienari zuri euskaraz hitz egiteko gonbitea egin nahi diozu? Belarriprest zara!

Euskaraz dakiten guztiei zuri euskaraz egiteko gonbitea egingo diezu. Euskara ulertzen duzula adieraziko diezu eta zurekin euskaraz hitz egin dezatela eskatu.

INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEKO MAHAIAK

OSTILALETAN

Beheko Plazan

19:00-21:00

LARUNBATETAN

Beheko Plazan

12:00-14:00

Mutrikun Euskaraldirako izena eman dutenak (urriak18ra arte):

155 Partaide

125 Ahobizi

30 Belarriprest

Orain dala ehun urteko airoplanua

"Bi arioplano pasauta bat itsasora jausi...". Askok ez deue jakingo benetako gertaera baten berri ematen digula Mutrikun hain ezaguna dan kanta horrek. Historixa hori ikertzen dihardu Josu Larrañagak. Gaur hona aurrerapen txiki bat ekarri digu.

Tio Antonioren pasadizuak

"Ez zuan, ez, sentsazio atsegiña. Ia zeiñen gustukua dan gau erdixan arratoiek esnatzia, eta ez edozela gaiñera, norperaren ezpaiñak txupau eta kili-kili eginda...". Gozamen hutsa zan tio Antonioren ibillerak entzutia. Hamaika aldiz errepikatu arren, ez giñan entzutiaz aspertzen. Soldautzan Ceuta edo Melilla aldian bizi izandakuen gogortasuna azpimarratzeko lurzoruan lo egitxen zeuenekua azaltzen zigunian bezala. Holakuetan, illobak, bere inguruan jartzen giñan, isillik, hitz erdirik galdu gabe. *"...bai ba, mutur illetsuak somatzen giñuazen afaltzeko jandako meloiak ezpaiñetan lagatako arrasto gozuei errepasua ematen"*. Horixe zan narraziuaren gaillurra. Soldautza edo gerra zibillaren gordiña ere bazakixan umorez leuntzen tiok. Abilla zan egixa eta txantxen arteko marra fiña marrazten.

* * * *

Arratsalde hartan txabolarako eskailleta-mailletan jarritxa nauan, bi-hiru lagunekin. Mendixan batutako maillubiak bedar luzietan sartzen giñardun. Hasieran batu ahala bedarretan sartzen genduzen, baiña maillubi txiki usaintsu harek azkarrago batzeko, nunbaitxen gordetzia erabaki gendun. Beste ezer ez eskura eta txabola aldameneko hortentsiatik ostro zabalenak hartu eta patata saltzailliek erabiltzen zitxuen kukurutxo itxurakuak egin genduzen. Eskailletetan lanpetuta gabiltzen, onduen zozen maillubixak bedarretan josten genduzen, eta maluskatuenak edo zurixkenak dzaust! ahora. Ziurtasunez egitxen gendun hori, gurasuek oillaskuaren lepua edo txitxarruen begixak jaten zitxuenian bezela. Jateko prestatzen genduzen "ezpata" gorri harek etxekuei oparitzen giñozen.

Horretan gozela, han agertu zakun tio. Geure osaba zan, baiña guztiek esaten zixuen hola, *tio Antonio*. Guk "tiantonio" esaten giñon. *Ze, barrabas horrek, oain ere zeozetan?*. Atxur txikixa zakarren eskuetan tiok, bistakua zan baratzatik atorrela. *Ba al dakik zer dan hau?* galdetu zidan. *Atxur txikixa*, nik. *Jorraixa esaten zixueken lehengo zaharrek*. Tiok sarritxan aitxatzen zitxuan hitz horrek, "lehengo zaharrak" edo "lehenguak" besterik gabe.

Asko zakixan tiok, bere belaunaldikuen kontuak eta lehenagokuenak. Zeruaren urdiña urratzen zihardun concorde motako hegazkiña ikusi eta atzamarrez seiñalatu zoan Zigor lagunak, *"han abioia!"*. Danetarako zaukan erantzuna tiok: *Abioi hori urruti diok, baiña. Mutrikun bertan ere ikusitxa niok ni abioia, portuan. Haura arioplanua zuan.* Txapela erantzi, burutik eskua pasatu eta berriz ere okerdura egokixa emanda jantzi zoan. *Nik zuen edadia eukiko nian orduan, 7-8 bat urte, moillan arioplanua zauala-ta, aidian hurreratu giñaken Motrikuko ume danak*. Orduan ere, ezin igarri tiori egixa esaten zihardun ala adar-jotzia ete zan. Hasieran ez zoan zirkinik egitxen, harik eta bere begi txikixetan halako distira batek adarra jotzen zauala salatzen zoan arte. Orduan baiña, ez nion batere distirarik ikusi begixetan. Kantuan ere hasi zakun, *Bi arioplano pasata, bat itsasora jausi....*

Halaixe eman zigun tiok ordura arte entzun gabe neukan gertaera haren berri.

Baiña, egixa zan haura? Izan ere, tioren pasadizuek erantzun garbixak baiño zalantzez josixta lagatzen gintxuen. Ez al da arrarua itsasora amildutako hegazkiña itsasontzi batek ekartzia? Ez zan hondora uango? Eta, gogorrena, tiok 7-8 urte? Iñoiz euki al deu ba edade hori, pentsau noan, beti izan da-eta zaharra...

Ama deika hasi zakun, hoztutzen zauala eta jertsiak hartzera juateko. Bueltatu giñanerako tio juanda zauan eskailleta ingurutik. Bertan lagata gendukezen maillubidun "ezpata" harek erabillitxa hegazkin itxurakua eginda azaldu zan lurrian. *Earra, tio!* Esan noan.

Zenbat arioplano?

Adin batetik gorako mutrikuarrek holaixe kantatzen deue: *Bi arioplano pasauta, bat itsasora jausi (bis) /ekarri, Anjelitak ekarri, Anjelitak ekarri /Anjelitak Kosmen buxian utzi.*

1990. urtian *Delirium Tremens* musika-taldiak bere azken diskua kaleratu zoan: "Hiru aeroplano". Izen bereko kantia zakarren. *Hiru aeroplano pasauta / bat itsasora jausi / ekarri, Angelitak ekarri / Angelitak fondua emanda utzi.*

Orduan, bi ala hiru? Hori argitxu nahixan beste portu batzuetan kantatzen diran bertsiuetara jo ezkero, kontua are gehixo korapillatzen zaku, izan ere lekeitxiarrek ere bi hegazkin aitxatzen baditxue ere *(Arioplano bi pasata, bat itsasora jausi (bis) / Ekarri / Seberianok ekarri (bis) / Seberianok barran pondo emonda itxi...)*, Bermioko kantan lau dira hegazkiñak: *Lau aeroplano pasata, bat itsosora dxeusi (bis) / ekarri / Sebastianak ekarri (bis) / Sebastianak Artzan enkalleta itxi*.

Kantetan *arioplanuak* edo *aeroplanuak* aitxatzen dira, baiña, kontuz, itsasora amildutakuak ez ziran edozelako abioiak, harek hidroabioiak edo ur-hegazkiñak ziran.

Zenbat baiña? Bi, hiru, lau...? Horixe arioplano-saltsia! Hiru herrixetan euren historixa jotzen deue benetakotzat, beste bixak asmatutako upintzat hartuta. Baiña askok benetako gertaera bakarra dauala pentsatzen badeue ere, oker dabiltz. Hirurak dira egixa!!


Lekeitxion 1917. urtian porturatu zeuen hidroabioia, Mutrikun 1918. urtian eta Bermion 1920. urtian. Gaur hona Mutrikukua baiño ez degu ekarriko.

Zer dakar Anjelitak?

Horixe galdetuko zixuen alkarri Mutrikuko portuan zozenek 1918ko urrixaren 27xan. Domeka hartan arratsaldeko ordu batian Cesareo Zumalaberen *Angelita* baporak hidroabioi frantses bat ekarri zoan erremolkian Mutrikura. Donostiatik 12 millatara topatu zeuen, itsaso zabalian.

Adiñekuek, lehengo zaharrei entzunda nunbaitx, esaten deue Donostia inguruko porturen baten zauala pondo emanda hidroabioia eta sokia apurtuta itsaso zabalera erauan zoala haiziak. Orduko prentsak bestelako azalpena ematen deu: *"El aparato francés tenía sujeto a su proa un gran trozo de cuerda. Esta hace suponer que iba a remolque de alguna embarcación y que al romperse la amarra quedó abandonado"*.

Edozela ere, hegazkiña ikusi zeuenian *Angelita* baporekuak hurreratu egin ziran. Mutrikuko kantak jasotzen deu



*Bibotex*ek –José Ituartek– saltatu zoala: "*Kostadura juan eta Bibotexek saltatu...*". Hala ere gauzak ez doz hain garbi; batzuek esan digue 17 urteko Angel Urreizti "Angelin" izan zala lehelen saltatu zoana. Ez zauan iñor barruan. Bi pistola topau zitxuan bertan.

Mutrikuko portuan hamar egun egin zitxuan "arioplanuak", harik eta, azaruaren 5ian, Bustamante izeneko gerra-barkuak –destroierra zan–, erremolkian, Donostiara eraman zoan arte.

Ur-hegazkin haura gerra-hegazkiña zan. Artian lehelengo mundu gerra (1913-1918) amaitxu gabe zauan. Espaiñia "neutrala" zan, baiña lantzian behin urpeko ontzi edo submarino alemanen billa zabiltzen hidroabioi frantsesak (aliatuak) ikusi zeikezen euskal kostaldian. Eta, jakiña, hidroabioi horretako batzuk itsasora amiltzen ziran. Horixe pasatu zan Lekeitxion 1917ko uztaillaren 2xan. Mutrikura ekarri zeuena ere zeregin hortan ibiltzen zan, Baionatik ertenda.

Mutrikuko egonaldixan, ikusmin haundixa sortu zoan gerrako hidroabioi frantsesak; kantak ere hala jasotzen deu, "*Ondarrua ta Debatik atera da jendia / pasiatzera, guazen Mutriku aldera (bis) / han dauan arioplanua ikustera*". Donostian itsas armadakuen zaintzapian geratu zan, eta prentsak dakarrenez, han ere jente asko hurreratu zan ikustera, "*un gran gentío contempla el hidroavión desde el muelle*".

Angelita baporeko tripulaziokuek afarixa egin zeuen Mutrikun. Aingira-jana, itxuria. Nun, baiña? Mutrikun kantatzen dan bertsio ezagunenak Juana Urreizti "Pipax" andriaren tabernan (Ibirrixan) egin zeuela esaten badeu ere, beste bertsio batek Andra Txikixanian (Atxukalen) egin zeuela jasotzen deu.

Historixa eta literaturia

Ikusten dan bezela, orain ehun urteko gertaeria izan arren, kontu asko doz argitzeko... izan ere Jesús Zumalabek asmatutako kantia herrixak aberastu deu eta hola sortu dira aldaerak. Zumalabe kantari eta kantuzalia ez zan *Angelita*ko tripulaziokua, famelixakua zan. Eta entzundako historixia oiñarri hartuta osatu zoana ez da historixa hutsa, ahozko literaturatzat ere hartu geinke.


Hiru itxurri dakauz 1918. urtian gertatu zana argitzeko: batetik, Mutrikuko kantia (bere aldaerekin), bestetik, lehengo zaharrek goguan dakezenak, beuren aurrekuei entzunda itxuria; eta, azkenik, sasoi hartako dokumentaziua.

Mutrikun, Lekeitxion eta Bermion berdin-berdin amaitzen da kantua: "*Hori egixa da, hori egixa da, neuk ikusi det-eta...*". Geure sustraiei lotutako herrixak geran aldetik "ikusi eta ikasi" horrezaz gaiñera esan geinke gure zaharrengandik ikasitxakuak ixa-ixa ikusteraiño aillegatzen gerala. Batez ere kantuan gabiltzanian. Mutrikuko ereserkixak ere garbi jasotzen deu, "*Umetandikan sortzen zaizkigu / doiñu ta abestien griña...*".

Mutrikun ez bada, nun antolatu leike kantu batetik sortutako herri-antzerkixa? Halaixe egin zeuen hainbat mutrikuarrek 2015eko ekaiñaren 28xan, San Pedro bezperan.

Lekeitxioko gertaeria, eta biharbada kantia ere, guria baiño lehenagokua dan arren, zalantzarik gabe Mutrikukua da osuena eta guk gehixen maitxe deguna. Geuria dalako.

Josu Larrañaga Arrieta



ZERGATIK EZ?



Horixe izan zen Nora Makatzagak, Mutrikun bizi den oriotarrak, eta taldeko beste kideek beren buruei egin zieten galdera. 2018an, aurten, 40 urte betetzear zituzten emakume talde batek zerbait ezberdina egin nahi zutelako…

…betiko ospakizunetik kanpoko zerbait izatea, kirolarekin lotura zuen zerbait. Ideia mordoa airean. Bestalde, Orion arrauna modu berezian bizi dugu, odol gorria beharrean horia daukagula esaten dugu, eta arraunaren inguruko ideiak hasi ziren bor-bor. Orion bizi den emakume kataluniar batek buruan hartu eta han hasi zen marketina egiten whatsapp-a tarteko. Lehenengo bilera abuztu-irailean egin genuen, eta berrogeitik gora emakume bildu ginen orduan. Berrogei urte betetzear zeuden emakumeek ekin zioten ideiari, baina gazteago zein zaharragoak ere bildu ginen han. Arraun klubera eta udaletxera joan eta prest azaldu ziren guri laguntzeko, baina ikaste hutsean ez gelditzea proposatu ziguten, hau da, geure buruari erronka bat jartzearena, trainerua nonbaitera eramatearena. Hantxe atera zen Orio-Bilbo zeharkaldia egitearena.

…irailean 32 laguneko taldea sortu genuen. Horiei gehitu behar prestatzaile fisikoa, patroiak, entrenatzaileak… 35 urte gazteenak eta 58 urte zaharrenak. Ideia apurra zutenak eta arraunaren inguruko ideiarik ez zutenak.

…eta abenturari ekin genion. Lehenengo lana kirolarekin harremana berrartzea, aurrez zeukatenek behintzat, eta besteentzat berriz kirol mundua ezagutzea. Bigarren bileran proiektuari izena jarri genion: "Zergatik ez?" Hogeita hamabi emakume bakoitza bere gurasoen alaba; ez da izan lehia bat eta horrek lortu du gure arteko harremana izan den bezalakoa izatea. Hasieratik garbi izan genuen gure helburua arraunean ikasi eta erronka bat burutzea zela. Bakoitzak bere erritmoa izan du eta elkar laguntzeko izan da taldea. Whatsapp taldea sortu eta konpromiso batzuk jarri genituen elkarrenganako lotura lantzeko eta sendotzeko. Goizeko 7etan-8etan ikusi egin behar zen zer nolako giroa izaten genuen entrenamenduetan!

…lehenengo aldiz uretara irailaren azken aldera joan ginen. Entrenatzaile fisiko bat izan dugu eta hark ematen zigun astean zehar egiteko ariketak, fondoa hartzeko… gure artean baziren-eta sekula kirolik egin gabeak, edo urteetan egin gabeak… Orioko klubean kategoria ezberdinetako jendea biltzen da eta hasieran larunbata eta igande arratsaldeetan, azpiegitura libre zenean, entrena-



tzen genuen, gerora aste tartean ere bai. Bestalde, jendea konturatu zen ez ginela azaleko talde bat, gaur bai eta bihar ez ibiliko zena. Jarraipena, konstantziak eta seriotasuna izan dira gure iparra. Helburuok bete ondoren gure artean sortu den magia hori natural etorri da, ezin da sinistu, zenbaterainoko lotura sortu den gure artean.

…lanak ematen ditu familia, lana, ikasketak, mareak… uztartzeak. Eguerdian motxila hartu eta entrenatzera iluntzera arte. Gurasoa aita denean ez da hain arraro ikusten, baina bai ama denean. Eta hainbestetan aipatzen den kontziliazioa honako egoeretan eman da.

…errioan izan dira hasierako entrenamenduak eta otsailean Oriako jaitsieran ere parte hartu genuen beste hainbeste arraunlarirekin batera, profesionalak bezala, eta ederra izan zen. Aste Santuak arte errioan jardun genuen baina itsasora ateratakoan beste sentsazio batzuk izan genituen, itsasoa asko mugitzen da errioaren aldean, eta errespetua sortzen du. Itsasoak zeure lekuan jartzen zaitu.

…emakume helduak erronka berriari heltzen. Gurea ez da izan emakumetasuna aldarrikatzeko gunea, ez da izan erreibindikazio talde bat. Baina gure arteko harremanak tarteko, emakume izateagatik sortu du beste erabateko interes bat. Izan ditugu inguruan, urtea bukatzerako haserretuko ginela esaten zutenak, baina ez da horrelakorik gertatu eta, nahiz euri nahiz kazkabar, entrenatzen ikusi gaituzte. Azkenean hauek izan dira gure jarraitzaile finenak eta herrian nolabaiteko errespetuz begiratzen gaituztela esango nuke. Ez zuten uste Oriotik Bilbora iritsiko ginenik, eta propinan, Bilbotik Oriorako zeharkaldia ere egin genuen.

…entrenatzaileak izan dira gugan konfiantza izan duten lehenak, hasieratik. Sei entrenatzaile-laguntzaile, gizonezkoak guztiak. Sasoian jarri gaituen entrenatzaile fisikoa bata, fosoan ordu mordoa pasata arraunean irakatsi digun bestea, zodiac-arekin uretan entrenamenduak zuzendu dizkiguna, erronkan baporearekin Orio-Bilbo-Orio zeharkaldia gurekin egin duena eta bi patroi, senarra bata, nire euskarria.

…eta eguna heldu zen. Uztailaren 12a, osteguna: Orio-Bermeo. Gogorra. Ez genuen espero gertatutakoa. Barratik atera ginenean, haizea, olatuak, traineruak sekulako saltoak ematen zituen, baina ez ginen kikildu, segi eta segi baita belaunetarainoko urarekin ere. Indarra eta tenplea ez dakit nondik atera genituen. Getarian gelditu behar izan genuen arratsaldeko 4ak arte, gure prebisioen arabera ordu horretan Bermeon behar genuenean. Eguraldiak onera egin zuenean ekin genion berriz arraunari. Gaueko 9ak aldera iritsi ginen Bermeora. Han egin ziguten harrera, berriz, izugarria izan zen, inoiz ez ahazteko modukoa, gu denok eta gure zain zeudenak erabat hunkituta ginela. Lehenengo etapa burutu genuen!

…uztailaren 13an, bigarren etapa. Bermeo-Bilbo-Portugalete, gogorra izan zen, bero, Bilboko Abra, luze. Hurrengo egunean, larunbatean Portugalete-Ondarroa. Hango harrera ere ikusgarria izan zen; emakumeen batukadak eman zigun ongi etorria. Igandean, berriz, uztailaren 15ean, Oriorako bidea hartu genuen: espero ez genuen harrera herrian, irrintziak, etxafuegoak, txaranga, familia, lagunak… Amets bat bezala izan da guretzat. Gogorra eta aldi berean goxoa.

…benetako lagunak egiteko balio izan digu esperientziak. Gure harremanak ez dira bukatu zeharkaldiarekin. Bakoitzak gure lagunak izan arren taldean ere jarraitzen dugu gauzak egiten. Konplizitate handia sortu da gure artean. Lehen esan bezala, emakumeok honetan aritzea ez da zerbait erreibindikatzailea izan, ez baikaude gizonezkoen kontra. Lagundu diguten asko gizonezkoak izan dira, eta esango nuke, batzuetan emakume batzuk baino gehiago sinistu dutela gugan. Bestalde, bizi izan dugun esperientziak etxe askotako rolak aldatzeko balio izan duela esango nuke. Normaltzat ematen da gizonezkoa lanetik atera edota asteburuetan kirola egitera joatea; horixe bera lortu dugu guk, emakumearen kasuan ere "normaltzat" ematea alegia, eta horretaz harro gaudela esango nuke. Elkarrenganako "monoa" dugula ere aipatzen dut, eta Behobia-Donostia lasterketarako jarri dugu hurrengo hitzordua. Hemendik aurrera erronka eta kontu gehiago etorriko direla badakigu, zergatik ez?

AGURRAK ZORIONAGURRAK



HAIZEA eta ALAIN

Zoixonak bioi irailean urte berri bat bete duzuelako!
Matxo haundi pilo bat etxeko danon partez.



MONTSERRATARRAK

Urte askotarako Montserrateneko taldean.
Bistan daudenei eta Kubara Haizeari.



LAGUNA

Zorionak lagunari,
zorionak maite duzun
horri!



LAGUNA

Zorionak lagunari,
zorionak maite duzun
horri!



MARIA LUISA

Zorionak etxeko guztion partez
eta matxo bana Aritzek, Izarok
eta Garazik.





ZORIONTZEKO MODUAK

E-POSTA
kalaputxi2001@gmail.com
aldizkaria@kalaputxi.eus
WHATSAPP
635748393
ESKURA
***ANSORREGI* ZAPATA-DENDA**
BUZOIAN
LUARDO BEHEAN

Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak...)
asteazken iluntzetik igande gauera arte
943 60 34 39 · 636 386 016 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

ANSORREGI
oinetakoak
erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com

Argazki Zaharrak



1980ko hamarkadan, Langa Haundin meriendatzera joanda
Agustina "Maldomin",
Nati "Olabarro",
Juanita "Maldomin",
Amparo "Katxerua",
Faustina "Paloma".



Parke txikia eta Ederrena zinema, 1970eko hamarkadan

www.kalaputxi.eus/botikak

ZAINTZAKO BOTIKAK

(gaueko 10ak arte)

URRIA		AZAROA	
19tik 21era	Lasuen-Elezgarai	1	Lasuen-Elezgarai
22tik 25era	Amaia Zalduegi	2tik 4ra	Lon Apraiz
26tik 28ra	Hiart Burgoa	5etik 8ra	Hiart Burgoa
zapatu (27) goizean, Lon Apraiz		9tik 11ra	Amaia Zalduegi
29tik 31ra	Lasuen-Elezgarai	12tik 15era	Lon Apraiz
Gauetan, egunero (22:00-00:00):		16tik 18ra	Lasuen-Elezgarai
Pilar Etxeberria Botika		19tik 22ra	Amaia Zalduegi
Errosario kalea 26, Elgoibar		23tik 25era	Hiart Burgoa
Gauetan, egunero (22:00-09:00):		zapatu (24) goizean, Lasuen-Elezgarai	
Idoia Lafuente Botika		26tik 29ra	Lasuen-Elezgarai
Sostoatarren kalea 10, Eibar			

MENDI IRTEERAK

azaroak 18

Araia - Aratz (1.445 m) - Arantzazu

abenduak 2

Ondarroa inguruetan zeharkaldia eta bazkaria

Burumendi Mendi Elkartea

ODOLA EMATEA

abenduak 14, 18:00etan

anbulatorioan

Gipuzkoako Odol Emaileak

##AGENDA##

urriak 25, eguena
Emakumeak Saturraran-go memorian
Zabiel kultur etxean, 19:00

azaroak 10, zapatua
Merkatu txikia
Beheko plazan, goizean

ANTZERKIAZ BLAI

AZAROAREN 16tik

ABENDUAREN 15era

ARGAZKI ERAKUSKETA

Mutrikuko argazki lehiaketako lanak

azaroaren 8tik 24ra

GABA BELTZA

azaroak 26, barixakua
Axuri Beltza dantza
Talaixako Mamuaren erreketa
Beheko plazan, 20:00ak aldera

urriak 27, zapatua
Haurrentzako tailerra
Arima Dance taldearen kalejira
Diskofesta
Arratsaldean

urriak 31, eguaztena
Ipuin kontalaria 4-9 urtekoentzat
Liburutegian, 17:00

egitarauak eta deialdiak: aldizkaria@kalaputxi.eus edota whatsappa 635748393

www.kalaputxi.eus/agenda




ALAZNE OPTIKA



Jose Mª Altzibar etorbidea 1
Tel. 943 60 31 54 · alazne.optika@gmail.com

ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)



NARKIS ANDONEGI BELAUSTEGI

1928.06.20 2018.10.01



Bitor Arizmendi Aranberri

1921-VIII-19 / 2018-X-4

Lasai-lasai egin duzu hegan
hurbileko maitatuen
lurraldera.

Bidal iezaguzu,
goizeko izarraren bidez,
horko paisaiaren margo majikoa,
itsas kolpeen doinu
sarkorrarekin batera.

AGUR ETA OHORE

Eskerrak une mingotetan babesa
erakutsi diguzuen guztioi.

MUTRIKUKO KIROLDEGIA



2018 AKTIBITATEAK

	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala
9:30	LesMILLS BODYBALANCE	LesMILLS BODYPUMP	---	LesMILLS BODYSTEP + CXWORX	---
15:00	LesMILLS BODYPUMP	Yoga	LesMILLS BODYSTEP + CXWORX	LesMILLS BODYBALANCE + Pilates	Yoga
18:00	LesMILLS BODYBALANCE + Pilates	---	LesMILLS BODYPUMP	TRX Suspension Training	LesMILLS BODYSTEP
19:00	ZUMBA fitness	LesMILLS BODYSTEP + CXWORX	LesMILLS BODYBALANCE + Hipopresiboak	LesMILLS BODYPUMP + CXWORX	---
20:00	LesMILLS BODYPUMP	---	ZUMBA fitness	---	---

	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata
10:30		SPINNING			SPINNING	9:30 Ikasketa posturala eta luzaketa globala (1)
16:30	Gazteentzako Kirol Plana		Gazteentzako Kirol Plana			
18:00		SPINNING			SPINNING	10:45 Ikasketa posturala eta luzaketa globala (2)
19:00	SPINNING		SPINNING			

Ohar garrantzitsua: erabiltzaile bakarreko saloak bertan behera geratuko dira

mutrikukokiroldegia@gmail.com · **943 60 31 75** · www.mutriku.eus · kirola@mutriku.net